

SPOOK SCHOOL

ARRATOITZARRAREN MADARIKAZIOA

PETE
JOHNSON

Irudiak
Tom Percival

Itzulpena
Miren Ibarluzea



Lehenengo kapitulua Saguzar bihurtuta



Bare likatsu itsusi baten itxura hartuta
nengoen.

Arretatsu, hauxe esan nuen:

—Orain, bare likatsu, hegan! Lewisen
sudurrera!

Gainerako ikaskideek hegaldatzen ikusi
ninduten. Lewisek ez, ordea. Lanpetuegi
zegoen etxerako lanekin, eta nola
konturatuko zen, ba, inguruan hegan ezer
zebilkiola? Bare likatsua sudurrean pausatu
zitzaionean bai, orduan jauzi egin zuen.

—Zer da hau, baina? —egin zuen deiadar.



SPOOK SCHOOL

Ikaskide guztiak barre-algaraka hasi zitzaizkion.

—Charlie, zeu izan zara, ezta? —egin zuen oihu Lewisek.

—Bai, noski —esan nuen.

Izan ere, edonondik agerraraz ditzaket bareak. Baita armiarma beldurgarriak ere... Eta beste edozer, mamua naiz eta! Eskola honetako kide guztiak gara mamuak. Mamu esatea gustatzen zaigu, eta ez fantasma deitzea.

Ni neu duela aste gutxi batzuk iritsi nintzen Spook School mamu-eskolara. Hasieran beldurgarri samarra izan zen: mamuak nonahi zebiltzan hemen, laino lodiz inguratutako eraikin gris erraldoi honetan. Eraikina igarobide luze ilunez beteta dago, dena dago amaraunez josita... Beldurrezko film batean sartzea bezalakoa da hau, baina, egiaz, eskolan zaude.

SPOOK SCHOOL

Ez zitzaidan asko gustatu mamu izanda ere eskolak jaso behar izatea... Hala ere, ikasgaiak bereziak dira: nola hegan egin, atea eta hormak nola zeharkatu, eta, noski, gauzak ezerezetik nola agerrarazi. Bada, gau hartako eskolan itxuraz nola aldatu ikasi behar genuen. Hura larritasuna!

Gure irakasleak, “Gorengoen barrabana” esaten diogunak, honela hasi zuen ikasgaia: —Gaur saguzar txiki nola bihurtu ikasiko dugu. Saguzarra imajinatu behar duzue, eta hari begiratu. Saia zaitezte zeuen buruetan ahalik eta argien irudikatzen... eta, orduan, esan: “Itxuraldatu!”.

Arretatsu, saguzarra irudikatzen saiatu ginen denak. “Itxuraldatu!” egin genuen oihu, eta zain geratu ginen. Ezer ere ez.

—Arreta handiagoa jarri behar duzue —esan zigun Gorengoen barraban andreak.

SPOOK SCHOOL

Gelan isiltasun erabatekoa
zegoen, saguzarrak hegan
entzuteko bestekoa.

—Itxuraldatu! —egin nuen
oihu, gogor.

Eta, hara: lortu nuen!
Saguzar bihurtu nintzen.
Gelako lehenengoa izan nintzen.

Lewis izan zen saguzar
bihurtzen hurrengoa.

Pozik nengoen hala izan zelako:
Lewis da hemen egin nuen lehenengo
laguna, eta lagunik onena dut, gainera.

